


2002/04/30eko **prentsa-oharra****ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI)****2002ko martxoa**

## **ERAIKUNTZAREN KOSTUAK %0,2 HAZI ZIREN 2002KO MARTXOAN**

**Urte arteko hazkunde-tasa (2002ko martxoa, 2001eko martxoaren aldean) %1,7koa izan zen**

2002ko martxoan, Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,2 hazi zen Euskal AEn, Eustaten datuen arabera. Urte arteko aldakuntzari (2002ko martxoa, 2001eko martxoaren aldean) begiratuz gero, %1,7koa izan da kostuen goratzea. Eta, aurreko abenduaren aldean, %2,3koa izan da lehenengo hiru hiletako tasaren goratzea.

### **Urte arteko aldakuntza-tasa, 1994-2002**



(\*) Gehikuntza eskainia martxoko urte artekoa da.

**Iturria: EUSTAT**

Lehengaien kostuen gehikuntzak (%0,4) martxoan indize orokorrak izan duen ibilbidea markatu du. Izan ere, indizearen beste osagaiak (lan-eskuaren kostuak) ez du aldakuntzarik izan hilabeteko aldi horretan. Hala ere, urte arteko aldiari, lan-eskuaren kostuak %3,5 handitu dira; lehengaien kostuak, berriz, %0,5.

*Eraikinak* eta *obra zibila* azpisektoreek bilakaera desberdina izan dute martxoan: %0,3 gehitu dira lehenaren kostuak, eta %0,6 bigarrenarenak. Aldeak, alabaina, desagertu egiten dira urte arteko bilakaeran, zeren bi azpisektore horietako lehengaien kostuek tasa berdina lortu baitute martxoan (%0,5ekoa) bi kasuetan, aurreko urteko hilabete beraren aldean.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2002ko martxoan, hauek izan dituzte gorakadarik handienak prezioetan: *petroliotik eratorriak* (%6,9), *zementutik eratorritako produktuak* (%1,6), *olioak eta koipeak* (%1,6), eta *pinturak eta bernizak* (%1,0), besteak beste.

Prezioen urte arteko bilakaeran, igoera nabarmenagoak ageri dira kontsumitutako produktuen artean: *zementu artifiziala* (%5,3), *eskuzko lanabesak* (%5,1), *laneko arropak* (%4,8), *pinturak eta bernizak* (%4,7), *makineria erabiliaren osagarriak* (%4,3) eta *zementutik eratorritako gaiak* (% 2,1), besteak beste.

| ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA |                            | 2002KO MARTXOA            |                                      |                              |
|-------------------------------------------------------------|----------------------------|---------------------------|--------------------------------------|------------------------------|
| GOIBURUAK                                                   | INDIZEA<br>Oin., 1995= 100 | GEHIKUNTZAREN %           |                                      |                              |
|                                                             |                            | Aurreko hilaren<br>aldean | Aurreko urteko hil<br>beraren aldean | Aurreko abenduaren<br>aldean |
| <b>KOSTUA GUZTIRA</b>                                       | <b>118,6</b>               | <b>0,2</b>                | <b>1,7</b>                           | <b>2,3</b>                   |
| ERAIKINAK                                                   | 119,0                      | 0,1                       | 1,7                                  | 2,2                          |
| OBRA ZIBILA                                                 | 117,4                      | 0,4                       | 1,7                                  | 2,6                          |
| <b>LEHENGAIEN KOSTUA</b>                                    | <b>112,9</b>               | <b>0,4</b>                | <b>0,5</b>                           | <b>1,5</b>                   |
| ERAIKINAK                                                   | 113,5                      | 0,3                       | 0,5                                  | 1,3                          |
| OBRA ZIBILA                                                 | 111,1                      | 0,6                       | 0,5                                  | 2,0                          |
| <b>LAN-ESKUAREN KOSTUA</b>                                  | <b>127,9</b>               | <b>0,0</b>                | <b>3,5</b>                           | <b>3,5</b>                   |

Argibide gehiagorako:

|                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  <b>Eustat</b> | Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística<br>Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz<br>Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: <a href="mailto:eustat@eustat.es">eustat@eustat.es</a><br><b>Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta</b><br>Tel.: 945 017 505. Faxa: 945 017 501.<br><b>Prentsa-oharrak Interneten: <a href="http://www.eustat.es">www.eustat.es</a></b> |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|